

HORDAGO!

DROGEN ERRONKARI AURRE EGIN

IRAKASLENTZAKO
3
ESKULIBURUA



© 2004-2016 EDEX

Indautxu, 9
48011 Bilbao

Tel.: 94 442 57 84

Faxa: 94 427 57 09

E-posta: edex@edex.es

www.edex.es

www.ordago.net

Egileak:

Roberto Flores Fernández
Juan Carlos Melero Ibáñez

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente

Itzulpena: Labayru Ikastegia

ISBN: 978-84-9726-898-1

Eskubide guztiak gordeta.


Egileen eskubideei buruzko legeak
arautzen ditu idazki-zatien kopia guztiak,
prozedura edozein dela ere.

Laguntzaileak

José Antonio Sánchez, Pedro Amorós, Manuela de la Cruz eta Hilario Garrudo (EDEX Fundazioa); Jesús A. Pérez Arróspide (Drogarik gabe Bizi Fundazioa); José Manuel Ania, Maite Blanco eta Ana Otero (Asturiaseko Printzerria); María Jesús Mateu eta Margarita Oliver (Valentziako Erkidegoa); Inés Ruiz eta Ángela Higuera (Kantabriako Erkidegoa); Juan de Dios Mercarejo eta Carmen López (Andaluziako Junta); Fermín Castiella (Nafarroako Foru Erkidegoa); Marta Azkarretazabal eta Raimundo Parreño (Portugaleteko Udala); Felisa Goikoetxea (Irungo Udala); Puy Gaztañaga (Ordiziako Udala); Lurdes Senovilla (Tolosako Udala); Erenia Barrero (ABS/Mostoloseko Udala); Antonio Domínguez, Asensio López eta Manuela Villanueva (Murtziako Udala); Luis Contreras (Cartagenako Udala); Izaskun Núñez eta Carmen Suárez (Fuerteventurako Kabildoa); Enrique Elvira eta Antonio Padrino (Getafeko Udala); Ángelo Afonso eta Raimundo Almeida (La Aldea de San Nicoláseko Udala); Concepción Suárez (Mogáneko Udala); Noé Rodríguez eta Javier Garrido (Agüimeseko Udala); Dunia González (Santa Lucíako Udala); Néstor Rodríguez (Teroreko Udala); Sofía Rodríguez (Teguesteko Udala); Jennifer Hernández eta María José González (Santa María de Guíako Udala); eta euren iradokizunak adierazi dizkiguten irakasle guztiak.

aurki- bidea

		Sarrera 04
informazioa		saioa 1 Drogen merkatua 12
sinesmenak		saioa 2 Zer dago jokoan? 14
jarrerak		saioa 3 Zer irabazten dut nik? 16
eraginak		saioa 4 Publizitatearen esamesak 18
buru-estimua		saioa 5 Gainerakoekin dudan harremana 20
erabakiak hartzeko prozesua		saioa 6 Honako erabaki hau hartuko dut... 22
taldearen presioari aurre egin		saioa 7 Presioari aurre egiten 24
aisialdia		saioa 8 Zeren bila zabilta, bada? 26





Prebentzioa, hezkuntzaren testuinguruan



Hezitzaileek droga-menpetasunen prebentzioa hezkuntzako zereginetan landu nahi dutenean, ulertzeko modukoa da zalantza ugari izatea: ezertarako balio du prebentzioak?, merezi du zeregin horretan denbora inbertitzea? Galdera horiek guztiek erantzun egokia dute gaur egun: benetan merezi du, jakin bada-kigulako zelako osagaiak izan behar dituen prebentziorako egitasmo eraginkorrak.

Ez dago droga-menpetasunetan aditua zertan izan prebentzioa garatu ahal izateko. Oinarrizko zenbait abiaburutan datzan hezkuntzak egoera aldatzeko duen ahalmenean sinetsi besterik ez dago:

- **Ikaskuntza adierazgarria sustatu, ikasleek drogei buruz dituzten iritziak, balioak eta jarrerak kritikoki aztertzeak aukera izan dezaten eta erabakiak hausnarketan eta kritikan oinarrituta har ditzaten.**
- **Drogekin zerikusia duten egoera zehatzen azterketa bultzatu, euren eguneroko esperientzietan oinarrituta, ikasleen jarrerak eta balioak argitzeko.**
- **Ikasleen sinesmen eta esperientzietan oinarritu, drogen kontsumoari eta kontsumoarekin zerikusia duten bizimoduak buruzko hausnarketa konstruktiboa sustatzeko.**

Abiaburu horiek gauzatzeko, hezitzaileak eurak bitartekariak izan behar dira. Drogak eskaintzen dizkietenean, zentzuzko erabaki autonomoak hartzeko gaitasuna ematen dieten ezagutza, jarrerak, balioak eta trebetasunak garatzen lagundu behar diete ikasleei. Horretarako, erraz erabiltzeko moduko tresna didaktikoak izan behar dituzte. Izan ere, prebentzio eraginkorrean oinarrituta sortutako eta arrakastaz probatutako tresnak izan behar dira.

Premia horri erantzuteko sortu da **HORDAGO!** Tresna didaktikoa da, eta droga-menpetasunen prebentzioa eskolaratutako nerabeekin lantzea du helburu. Ekimenak irakasleei lagundu nahi die, pixkanaka-pixkanaka eskola bera osasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko eremua izan dadin, droga-menpetasunak hezkuntzan bertan jorratu ondoren.

Horri lotuta, **HORDAGO!** egitasmoaren helburua ez da ikasleen hezkuntza-ibilbidearen parean doan garapena izatea. Hain zuzen ere, drogen arlotik bertatik, Osasunerako Hezkuntza eraginkortasunez kontuan hartzen duten proiektu pedagogikoak sortzeko aukera paregabea da. Familiaren eta erkidegoko gainerako eragileen laguntzaz, irakasleek zuzendu eta curriculumean kontuan hartutako hezkuntza-ekintzen bidez eskumen psikosozialak garatzea da **HORDAGO!** egitasmoa eta antzeko proposamenak ezartzeko modu egokiena.



Osasunerako Hezkuntza, Bigarren Hezkuntzan

HORDAGO! egitasmoaren helburu den etapak berariaz jorratzen du Osasunerako Hezkuntza ikasleen hezkuntza-ibilbidean. Honako hau egin behar da etapan zehar, curriculumeko zenbait jakintzaren (Gizarte Zientziak, Natur Zientziak, Hizkuntza...) koordinazioan, tutoretzan edo hezkuntzako beste esparru batzuetan oinarrituta:

- **Gizarte-ekintzetan eragina duten eragile nagusiak aztertu eta naturaren oinarritzko legeak ezagutu.**
- **Osasunarekin, kontsumoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gizarte-ohiturak kritikoki balioetsi.**
- **Gorputz-hezkuntza eta kirolak erabili norberaren garapena sustatzeko.**

HORDAGO! egitasmoak berak ere ezagutzazko, jarrerazko eta jokatibidezko trebetasun horiek sendotzen ditu, honako gaitasun hauek garatzeko orduan:

- **Talde-lanaren zentzua sendotu eta gainerako enasmoak, esperientziak eta pentsaerak balioetsi.**
- **Izpiritu sustatzailea sendotu, eta, horretarako, norberaren ganako konfiantza-jarrerak, zentzu kritikoa, norberaren ekimena eta planak egiteko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak nork bere gain hartzeko gaitasuna garatu.**

Drogen kontsumoa nerabezeroan

Zergatik 12-16 urte arteko neska-mutilentzako egitasmoa? Azterketen arabera, adin-tarte horretan dutelako lehen harremana alkoholarekin, tabakoarekin eta gainerako drogekin.


Etapaz ezin garrantzitsuagoa da nortasunaren eraikuntza eta bizimoduaren garapenean, eta substantzia psikoaktiboekin duten harremanaren eraginpean egon daiteke.

Une horretan, drogen kontsumoak zenbait eginkizun izan ditzake nerabeentzat:

- **Helduen mundura igarotzeko erritua izan daiteke.**
- **Taldeko kideak direla sentiarazi diezaieke.**
- **Gizarte-harremanak ezartzen lagundu diezaieke.**
- **Jakin-mina ase dezake.**

Ezin dugu drogen kontsumoa errealitatea arakatzeko eta aukerak ezagutzeko prozesuan nerabeek bizi dituzten arrisku-egoeretatik kanpo utzi. Batzuetan, kimikan oinarrituta euren buruarekin esperimintatzeko hurbilduko dira drogetara. Beste batzuetan, jai bera biziagotzeko modua izango da. Beste une batzuetan, nerabeen ezinegonaren emaitza izango da. Nola edo hala, prebentzioak ezin du alde batera utzi gazteen pentsaera, drogekin duten harremanaren bidez ere adierazten delako.





Gaur egun, dibertsioa bilatzea da drogak hartzeko arrazoi nagusietakoa. Drogak oso erakargarriak dira autonomia estreinatu berri duten nerabeentzat, arauzko jokabidea delako euren adineko pertsonen artean, kontsumoaren inguruko aurreikuspen onak garatu direlako eta talde-jokabidea oso garrantzitsua delako adin horietan. Izan ere, araututako testuinguru ludikoetan gertatzen dira lehen gonbiteak, lehen presioak eta, askotan, lehen esperientziak. Lehen esperientzia horren azterketaren balantzea positiboa bada, askoz handiagoa izango da drogen kontsumoa errepikatzeko aukera. Horrela, bada, baliteke drogak eurak pertsonaren bizimodura eta dibertsiora lotutako osagaiak izatea aurrerantzean.



Bizitzarako trebetasunak

HORDAGO! egitasmoaren proposamenek bizitzarako trebetasunetan trebatzeko eredua dute oinarri. Prebentzioaren arloan, nazioartean adostasun handiena lortu duen eredu teorikoa da.

Aurrekari teorikoak

Zenbait ekarpen teorikoren emaitza da bizitzarako trebetasunen eredua¹:

- **Gizarte-ikaskuntzaren teoria:** Bandurak garatu zuen. Gizakien jokabidearen garapenean garrantzi handia ematen die behaketari eta moldaketari. Jokabideak norberarengan edo ereduatan dituen ondorioek zenbait jokaera sendotu edo gaitzesten dituzte. Era berean, buru-eraginkortasunaren kontzeptua nabarmentzen du, pertsona batek eguneroko erronkei behar bezala aurre egiteko gaitasunari buruz duen pertzepzioa da eta.
- **Gizarte-eraginaren teoria:** Evansek garatu zuen, Banduraren lanetan oinarrituta. Gizarte-presioek jokabidean garrantzi handia dutela adierazten du: berdinen taldearen presioa, ereduaren presioa (musikariak, kirolariak...), publizitatearen presioa, gurasoen eta neba-arreben presioa... Besteak beste, presio-iturri horiek antzematen, kritikoki deskodetzen eta behar den moduan aurre egiten irakasten die neska-mutilei eta nerabeei.
- **Adimen anitzen teoria:** Gardnerrek, Golemanek eta beste egile batzuek euren azterketetan egiaztatu dute koiziente intelektual hutsa baino dimentsio korapilotsuagoa dela gizakien adimena. Horrez gain, gizarte-adimenarekin eta emoziozko adimenarekin zerikusia duten eskumenak aipatzen dira, adimen horietan gabeziak badaude, ohiko adimen logiko-matematikoaren ahalmena gutxitu egin daitekeelako.
- **Arrisku-eragileen eta babes-eragileen teoria:** Jokabide jakin bat kontuan hartuta, jokabide hori sustatu dezaketen aldagaiak

¹ OPS (2001). Enfoque de habilidades para la vida para un desarrollo saludable de niños y adolescentes. Washington, DC.



dira arrisku-eragileak. Jokabide hori geldiarazi dezaketen baldintzak dira babes-eragileak. Izan ere, babes-eragile horiek azaltzen dute zergatik erantzuten duten modu desberdinean antzeko arrisku-eragileen menpean dauden pertsonak.

- **Teoria konstruktibista:** Piagetek eta Vigotskyk garatu zuten. Gizarte-elkarreraginek norberaren ezagutza-estiloaren garapenean duten zeresana nabarmentzen du. Ikuspegi-aniztasunak sortutako aurkakotasunak gizakien ezagutzaren bilakaera sustatzen du. Izan ere, ezinbestekoa da euren kontzeptuak berriro azaltzeko, material berria iristen zaienean. Teoria honen ekarpenetako baten arabera, ikaskuntzak adierazgarriak izan behar dira gizakientzat.

Bizitzarako trebetasunen azalpena eta sailkapena

Osasunerako Mundu Erakundeak honela azaltzen ditu trebetasun horiek²: «Gizakiei eguneroko bizimoduko eskakizunei eta erronkei eraginkortasunez aurre egiteko aukera eskaintzen dien jokabide egokitzalea eta positiboa garatzeko gaitasunak dira bizitzarako trebetasunak. Trebetasun pertsonalak, pertsonen artekoak, kognitiboak eta fisikoak dira, eta eurei esker, euren bizitza kontrolatu eta zuzendu dezakete pertsonak. Horrela, bada, euren ingurunearekin bizitzeko eta ingurunea aldatzeko gaitasuna garatzen dute. Hona hemen bizitzarako trebetasun indibidualen zenbait adibide: erabakiak hartzeko prozesua eta arazoek konponbidea,

sormenezko pentsaera kritikoa, norberaren ezagutza eta enpatia, komunikaziorako eta pertsonen arteko harremanetarako trebetasunak eta emozioei zein estresari aurre egiteko gaitasuna».

Hiru mailatan sailkatu daitezke bizitzarako trebetasunak:

- **Trebetasun sozialak:** gizarte-jokabide eragingarria sustatzen duten ahalmenak: asertibitatea, enpatia, komunikazioa, taldearen presioari aurre egiteko gaitasuna...
- **Trebetasun kognitiboak:** bizitzako egoerei jakinaren gainean eta zentzuz aurre egiteko trebetasun egokiak: arazoek konponbidea, erabakiak hartzeko prozesua, pentsaera kritikoa...
- **Trebetasun emozionalak:** emozioak behar bezala kudeatzeko ahalmen erabilgarriak: buru-estimua, estresari aurre egiteko gaitasuna...

Bizitzarako trebetasunak eskuratzeko trebakuntza

Bizitzarako trebetasunak ez dira abstraktuan ikasten, praktikaren bidez baizik. Hori dela eta, trebakuntzat hartzen da euren ikaskuntza eta honako baldintza hauek ditu:

- **Aplikazioak testuinguru adierazgarrietan:** trebetasun bat eraginkortasunez aplikatzeko, esanahi zehatza izan behar du. Trebetasun orokorrez ari bagara ere (taldearen presioari aurre



² OMS (1998). Glosario sobre Promoción de la Salud. Ginebra.

egiteko gaitasuna), egoera zehatzetan ikasten dira eragin-kortasunez (lagun-taldeak zigarrotxoak eskaintzen dituenen).

- **Elkarreraginezko metodoen erabilera:** ikerketak egiaztatu egiten du elkarreraginezko ikaskuntza-metodoak oso garrantzitsuak direla ereduaren arrakastari begira. Hezitzaileen zuzendaritzapean, elkarreraginezko teknikak (rol-jokoak, mahai-inguruak...) erabiltzen dira talde txikietan, atzeraelikadura egokia bultzatzeko.

HORDAGO! egitasmoa

Aurrekariak eta garapena

HORDAGO! 1996an hasi zen garatzen, PAVOT izenpean Kanadan arrakastaz probatutako tresna didaktikoaren sortzaileek EDEXi egokitzeko eskatu ziotenean. Sorta didaktikoa argitaratu egin zen, eta, bertan, Eusko Jaurlaritzako Droga-menpetasunen Idazkaritzak eta FADek parte hartu zuten. Argitaratu ondoren, ezartzen hasi zen, herrialde osoko zenbait Autonomia Erkidegotako (Euskadi, Kantabria, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Asturiaseko Printzerria), Kabildotako eta Udaletako droga-menpetasunen arduradunen ekimenez. Horrez gain, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren babesa lortu zuen. Horrela, bada, zazpi urteko ibilbideari eman zitzaion hasiera, eta horri esker, milaka hezitzaile engaiatu dira eta herrialde osoko milaka ikaslerekin erabili da.

Egitasmo berria

Batera egindako ibilbide horretan zehar, garapenean zuzenean engaiatutako eragileek egitasmoaren jarraipen eta ebaluazio iraunkorra egin dute, hau da, irakasleak, ikasleak eta administrazio sustatzaileetako arduradun politikoak eta teknikariak. Euren ekarpenak ezin hobeak izan dira, kontzeptuei, formatuari, ezarpenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko hausnarketa egiteko orduan.

Bestetik, Valentziako Generalitateak 2002an bultzatutako ebaluazioak irakasleek eta ikasleek emandako informazio egokia eskaini zuen, indar-guneak eta hobekuntza-arloak antzeman zituztelako.

Horren guztiaren emaitza da esku artean duzun proposamena. Zazpi urtean zehar praktikan jarri ondoren, egitasmoaren bertsio berrikusia eta eguneratua da. Hobetutako edukiek eta formatuek jarraipena ematen diote gure herrialdeko milaka hezitzailearen interesa pizten duen prebentzio-konpromisoari.

Helburu nagusia eta edukiak

HORDAGO! droga-menpetasunak prebenitzeko egitasmoa da, eta 12-16 urte arteko ikasleak ditu helburu. Egitasmoa garatutakoan, drogak eskaintzen dizkietenean ikasleek zentzuz eta autonomiaz erabakitzeko behar dituzten informazioa, jarrerak, balioak eta trebetasunak izatea da xede nagusia.





Arlo horretako aurrerapen sendoenen berri emateko asmoz, elkarren segidako lau ikasturtean hogeita hamabi saio egiteko proposatzen du HORDAGO! egitasmoak. Ikasturte bakoitzean zortzi saio egiten dira, eta honako arlo hauek dituzte oinarri, hurrenez hurren: informazioa, sinesmenak, jarrerak, eraginak, buru-estimua, erabakiak hartzeko prozesua, taldearen presioari aurre egiteko gaitasuna eta aisialdia.

Material didaktikoak

Egitasmoak irakasleen eta ikasleen esku jartzen du saio guztiak garatzeko moduko materiala, bai eta baliabide lagungarri ugari ere.

- **Sorta didaktikoa** karpeta batean aurkezten da, eta lau mailetarako Irakasleentzako Eskuliburuak eta Ikasleentzako Koadernoak eskaintzen ditu banan-banan. Horrela, bada, zenbait mailatako irakasleek aldi berean erabil dezakete sorta didaktiko berbera.
- **Irakasleentzako Eskuliburuak** eskema berbera du lau mailetan eta bertan garatzen diren zortzi saioetan. Saiook 50 minutuko iraupena dute eta honela garatzen dira:

Helburua: garatutako hezkuntza-lanari zentzua ematen dion xede berezia.

Aurretiko azalpenak: saioa garatzean kontuan hartu beharreko alderdiak.

Ariketa: hiru zatitan antolatutako proposamenaren aurkezpen xehea: hasiera, garapena eta amaiera.

Baliabideak: ariketa sustatzeko osagai lagungarriak.

Orientazio didaktikoak: saioaren garapena hobetzeko irizpide eta teknika erabilgarriak.

Gehiago jakin: saioko eduki nabarmenenei buruzko oinarrizko informazioa.

- **Ikasleentzako Koadernoak** beharrezkoa eta nahikoa da, eta hezkuntza-ikaskuntza ariketak egiteko fitxa erakargarriak ditu.

Egitasmoa ezartzeko baldintzak

HORDAGO! egitasmoa ikastetxeetan ezarri ahal izateko, abian jartzeko moduko baliabideak egituratu behar dira bertan.

HORDAGO! sekuentzia bidezko proposamena da, eta bere helburuak bete nahi ditu, ikasleek hezkuntza-etapa hori amaitzen dutenean. Hori dela eta, Osasunerako Hezkuntzan dauzkaten helburuak eta lehentasunak azaldu behar dituzte ikastetxeek. Horretarako, hezkuntza-prozesuari lotutako pertsona guztien adostasuna bilatu beharko dute eta proiektuaren ardura izan eta proiektua garatzean zein



aplikatzean koherentzia eta jarraipena bermatzen dituen pertsona izan beharko dute ikastetxean bertan.

Lehen saioaren hasieran bertan aurkeztuko dira garatu beharreko eduki guztiak, ikasleek ekimenaren nondik norako orokorra antzemateko aukera izan dezaten.

Hezkuntzako beste edozein proposamenetan bezala, irakasleek eurek erabaki beharko dute nola bideratuko dituzten edukiak, euren ikasleak arazo horietaz jabetu daitezzen. Horretarako, ikasleen eguneroko bizimodua nolakoa den jakin beharko dute.

Saioak adierazgarriak izateko eta taldea motibatuzeko, oso egokia izango da hezitzaileek ariketak eta ikasleen benetako esperientziak lotzea ariketen hasieran. Eduki guztietan ezarri beharreko urrats orokorra izango da, ikasleentzat bizipen-zentzua izan dezaten eta drogei zein ondorioei buruzko hausnarketa abstraktu hutsak izan ez daitezzen.

Irakasleek ez diete irmo eutsi behar saioetarako aurreikusitako iraupenari eta denbora-banaketari. Erreferentziak baino ez dira, eta erabilgarriak izan daitezke egitasmoaren ezarpena antolatzeke orduan. Garapena bestelakoa izango da ikasgela bakoitzean, irakasleak eta ikasleak ere bestelakoak izango direlako.

Egitasmoaren baliabideak

Bi eratakoak dira egitasmoaren baliabide lagungarriak:

- **Prestakuntza eta laguntza:** egitasmoa abian jartzeko orduan, oinarrizko prestakuntza-modulua eskainiko zaie irakasle parte-hartzaileei, bertan garatutako eduki eta dinamiken berri emateko.
- **www.ordago.net:** elkargunea izango da, eta, bertan, eragileek prestakuntzarako proposamenak, aholkularitza teknikoa eta esperientzien zein ariketen banku eguneratua izango dute eskuragarri.

Eskola, familia eta erkidegoa

Esku artean duzun ariketa-proposamenak hezkuntza-mundua du berariazko helburu. Dena dela, beste eremu batzuetan ere garatu daiteke prebentzioa. Gizarteratzeko lehen mailako esparrua den familiak eta erkidegoak eragin handia dute nerabezaroan zehar drogei ematen zaien esanahian.

Horri lotuta, hezitzaileek prebentzioarekin hartzen duten konpromisoa are eraginkorragoa izango da, gurasoen hezkuntza-erantzukizunean eta erkidegoak gazteentzat egiten dituen proposamenetan ere koherentzia handia badago.



ikasleekin lan egiteko

saioak



Drogen merkaturua

informazioa

→ aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek euren ingurunean gehien agertzen diren legez kanpoko drogei buruzko informazio objektiboa izango dute.

Kalamuaren eratorriak (haxixa eta marihuana) eta droga sintetikoak (estasia, speeda eta beste batzuk) legez kanpoko substantziak dira, eta, aurreko hamarkadetan, euren kontsumoa izugarri handitu da nerabe eta gazteen artean. Substantzia berriak ez diren arren, areagotu egin dira erabat.

Batez besteko adina kontuan hartuta, gazteek nerabezaroan bertan dute euren lehenengo

harremana droga horiekin. Hori dela eta, oso garrantzitsua da zure ikasleek droga horiek hartzean sortutako inplikazioei buruzko informazio objektiboa izatea.

Ariketaren helburua ez da ikasleak gai horretan adituak izatea. Izan ere, drogak eskaintzen dizkietenean ikasleek erabakiak hartzeko informazio erabilgarria izatea da ariketaren xedea.

ariketa

hasiera 5' ↓

Zure erkidegoko nerabeei sarriagotan eskaintzen dizkieten legez kanpoko drogei buruzko prentsa-albisteak aukeratu alde aurretik. Seguruenik, kalamua eta droga sintetikoak izango dira droga horiek. Horrela ez bada, ariketa egokitu besterik ez duzu. Adibide moduan, Ikasleentzako Koadernoko 1. fitxa erabili.

garapena 40' ●●●●

Prentsa-zatiak banatu ikasleen artean. Irakurri ostean, taldetan banatuta, ikasleek albisteetan drogei buruz agertzen den informazio guztia nabarmenduko dute. Ikasleek euren iritzia izango dute, eta bestelakoa izan daiteke, gainerako iritzia eta albisteetan agertutakoak kontuan hartuta. Nork du arrazoia? Eztabaidatu egingo dute, harik eta adostutako ondorioa lortu eta honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen duen taula osatu arte (Koadernoko 2. fitxa):

- Zer dira substantziak?: estimulagarriak?, depresoreak?...
 - Nolako itxura dute?: pilulak?, hautsa?, likidoa?...
 - Nola hartzen dira?: erre egiten dira?, jan egiten dira?, edan egiten dira?...
 - Zer ondorio bilatzen dituzte hartzaileek?
 - Zeintzuk dira benetako ondorioak?
 - Zer arrisku sortzen dira substantzia horiek hartzean?
- Ariketa amaitzeko, zalantzak sortzen dituzten osagai guztiak argituko ditugu.

amaiera 5' ✕

Saioaren amaieran, komunikabideek edo lagunek esaten duten guztia beti egia ez dela adierazi. Drogen gertatzen den bezala, arriskuak sor ditzaketen gaietan, behar-beharrezkoa da informazio-iturri fidagarrietara jotzea. Ikasleek Koadernoko 3. fitxan dute kalamuari eta estasiari buruzko informazioa.



→ orientazio didaktikoak

Batez ere, informazioa eskaintzea da lehenengo saioaren xedea. Hori dela eta, helburua ez da ikasleek duten informazioaren ordez hezitzailearen informazioa inolako irizpiderik gabe erabiltzea, ikasleek duten informazioa zein den jakitea baizik. Horrela, bada, informazio hori alderatu, osatu eta, hala badagokio, zalantzan jarri ahal izango da. Ezagutza eskuratzeko jokia balitz bezala egin

ariketa. Lanerako fitxen bidez, argi eta garbi azaldu beharko da zer dakigun, nola egokitzen den errealitateara eta zer informazio ez dugun.

Saio honetako edukiak lantzeko, Internetetik edo beste iturri batzuetatik ateratako informazioa eman ahal diegu ikasleei. Horrela, bada, taula osatu eta drogei buruzko eskuliburu moduan

erabili ahal izango dugu. Erakunde publikoak eta GKE bereziak informazio-iturri egokiak izan daitezke.

Ez hitz egin ikasleen ingurunean hartu ohi ez dituzten drogei buruz. Beti dago baten bat era guztietako substantziak, bitxienak ere bai, ezagutzen dituela jakitera emateko prest.

→ gehiago jakin +

Helduok drogei, kontsumoari eta arriskuei buruz dugun informazioa beti ez dator bat errealitatearekin, aurreko hamarkadetan ez zeuden legez kanpoko drogak edo substantziak direnean, batez ere. Askotan, informazio hori zaharkituta dago erabat. Beste batzuetan, ordea, estereotipoz eta aurreiritzi moralistez beteta dago, eta hori guztiori ez da batere mesedegarria kontsumoen benetako esanahia argitzeko orduan. Izan ere, egia esan, ez da batere lagungarria drogei dagokienez nerabeekin ditugun harremanak hobetzeko orduan.

Hori dela eta, ezinbestekoa da hezitzaileek drogei buruz duten ezagutza eguneratzea. **HORDAGO!**

egitasmoko web orrian, etengabe eguneratzen dugu gaur egun gehien hartzen diren drogei buruzko informazioa. Era berean, erabil ditzakegun beste informazio-iturri batzuen zerrenda ere badago ikusgai.

Drogei buruzko informazioak aurrera egiten du etengabe; batetik, ikerketek aurrera egiten dutelako eta ezagutza zientifikoari esker hobeto ezagutzen dugulako hizpide dugun gertakaria; eta bestetik, substantzia berriak eta alde aurretik ezagututako substantziak hartzeko modu berriak agertzen direlako etengabe. Nola edo hala, informazio hori lantzean behin eguneratu beharra dago. Horrela, bada, hezitzaileak ez dira adituak

izango, baina behar beste informazio sinesgarri izango dute, ikasleekin gai hori jorrazteko orduan.

Nerabeak ez dira drogen arloko adituak izan behar. Dena dela, oso egokia da sarritan eskura izango dituzten substantzien ohiko inplikazioei buruzko oinarrizko informazioa izatea. Informazio objektiboa oso lagungarria da drogei buruzko erabaki arrazoituak hartzeko orduan. Pertsonak informazio egokia badute eta kontsumoaren presioei aurre egiteko beharrezko trebetasunak badituzte, drogen kontsumoa ez da hain erraz izango euren bizimoduaren ardatza.



Zer dago jokoan?

sinesmenak



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek drogen kontsumoaren arrisku nagusiak antzemango dituzte.

Ariketa honek drogen kontsumoarekin zerikusia duten arriskuak lantzea du helburu. Arriskuaren kontzeptua helduen kontzeptua izan ohi da, batez ere. Nerabeek ahulak ez direla uste dute. Hilezkorrak direlakoan daude, hain zuzen ere. Hori dela eta, droga gehiegi hartzean sor daitezkeen hondamendien katalogoak aurkezten dien edozein mezu ez da eraginkorra izango ezinbestean. Azken batean, euren gertatuko ez zaiela uste dute. Ahultasunik ezaren sinesmen

horren eraginez, oso jokabide arriskutsuei eusten diete askotan, ustezko ondorioak kontuan hartu gabe.

Nerabezaroan haurtzaroan baino askatasun handiagoa dutenez eta den-dena miatu nahi dutenez, arriskuak pairatzeko aukera handiagoa dute. Arrisku horiei aurre egiteko, nerabezaroan bertan ere, arrazoitzen ikas dezakete, euren erabakiak gero eta arrazoituagoak izan daitezen.

ariketa

hasiera 5' ↓

Ikasleei galdetu zer hartzen duten «arriskutzat» eta «drogen kontsumoarekin zerikusia duen arriskutzat». Arbelean idatzi euren azalpenak. Arriskuen aurrean duten ahultasun-maila aztertuko dugu. Koadernoko 4. fitxako galderei erantzuteko eskatu eta, ondoren, ez dituztela euren erantzunak azaldu beharko argitu.

garapena 40' ●●●

Kasuren batean baietz erantzun duten galdetu ikasleei. Eztabaidari eman hasiera, honako galdera hauetan oinarrituta: Egoera horien arriskua antzematen dute? Ezusteko amaiera izan duen kasurik ezagutzen dute? Nola murriztu ditzakete arriskuak? Orain, drogen kontsumoari buruz hitz egingo duzue. Alkoholari eta tabakoari eman lehentasuna:

- Inolako arriskurik sortzen da ohiko-tasunez erretzean eta alkohola edatzean? Zeintzuk dira arrisku horiek?

Menpetasunik sortzen da? Zergatik eusten zaio drogen kontsumoari?

- Erretzeari uzten saiatu eta arrakastarik izan ez duen pertsonarik ezagutzen dute? Zergatik egin zuen porrot?
- Epe luzera baino ez dira gertatzen drogen kontsumoarekin zerikusia duten arriskuak? (Ikus 4. fitxa)

Tabakoaren epe laburrerako arriskuak gogoratu: neke goiztiarra, oxigenazio eskasagoa, hatsa...

amaiera 5' ✕

Amaitzeko, egoera asko arriskutsuak direnez, arriskuei aurre egiten ikasi behar dugula adierazi. Egoera batzuk nekez kontrolatu daitezke. Horra hor drogen kontsumoa.

Nerabezaroan, batez ere, gazteak oso ahulak izan ohi dira, oraindik ere nortasuna garatzeko prozesuan daudelako murgilduta.



→ orientazio didaktikoak

Nerabezaroan, nekez balioetsi daitezke droga gehiegi hartzean sortutako epe luzerako arriskuak. «Arriskua» hitzaren kontzeptu erraza bezain eraginkorra erabiliko dugu, eta drogak hartzean sortutako ondorio txartzat hartuko dugu.

Menpetasun psikosozialaren kontzeptua ere bada argigarria. Hain zuzen ere, menpetasun

fisikoa garatu gabe astebururo jarduera bera ohikotasunez egiten duten gazteen egoera aipatzen du. Droga-menpetasunen arloan sarritan agertzen den ezerezpena jarriko dugu zalantzan, eta drogen larregizko edo ez hain larregizko kontsumoarekin zerikusia duten arriskuei buruzko hausnarketa sustatuko dugu.

Ahultasunik ezaren sinesmena eta kontsumoarekin zerikusia duten berehalako arriskuen azalpena (kontrolaren galerarekin, agresibitatearekin edo lege-arloko inplikazioekin lotutakoak) dira saioko giltzarriak. Ohiko adibideak oso argigarriak izango dira, zentzuzko erabakiak hartu aurretik egin behar dugun azterketa kritiko eta kontzienteari begira.

→ gehiago jakin +

Informazio egokirik ez izatea lehen mailako arrisku-eragilea da drogen kontsumoari dagokionez. Azken urteotan arlo horretan gertatutako ondorio larri batzuek zerikusi zuzena dute kontsumoak pertsona bakoitzean duen eragina nolakoa den ez jakitearekin. Horra hor euren ondorioak kontuan hartu gabe inolako neurri barik hartutako droga sintetikoak. Esate baterako, gorputzaren tenperatura igotzeko ahalmena dute. Hipertermia hori oso larria da, droga sintetikoak giro itogarrietan hartzen direnean eta, aldi berean, ahalegin handia egiten denean; esaterako, ordu askoan dantzan egiten denean.

Sarritan, drogen kontsumoari eta kontsumo horri lotutako arriskuei buruz hitz egiten dugu, kontsumitzaile guztientzat unibertsalak eta berdinak izango balira bezala. Errealitatea, ordea, bestelakoa da oso. Pertsonak bestela erantzuten dute odolean drogak dituztenean. Are gehiago, pertsona berberak bestela erantzun dezake nola dagoen kontuan hartuta: alai edo triste, nekatuta edo lasai, osasuntsu edo gaixo... Hori dela eta, oso garrantzitsua da arriskuaren kontzeptua nabarmentzea, drogekiko harreman jakin batek eragindako ezusteko ondoriotzat hartuta.

Batzuetan, ez dakigu zeintzuk diren drogen osagaiak, droga sintetikoetan eta, oro har, legez

kanpoko drogetan gertatzen den bezala. Zenbait urtetan zehar ohikotasunez hartu ondoren, ez dakigu nolako ondorioak izango dituzten droga horiek gure organismoan. Gau berean droga horiek nahastuz gero, nekez aurreikus daitezkeen ondorioak sor daitezke, pertsonak esperientzia handiaren hasten dira drogak hartzen. Izan ere, ez da batere erraza gure organismoan, ezinbestean, ondorio bereziak sortzen dituzten substantziei buruzko jakintza egokia izatea.

Ikasleentzako Koadernoan, drogen kontsumoarekin zerikusia duten arrisku nagusi batzuk berrikusi ahal izango dituzu.



Zer irabazten dut nik?

jarrerak



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek drogen merkatuaren azpian dauden interesak antzemango dituzte.

Legezko edo legez kanpoko drogen kontsumoaren oinarrian, negozio itzela dago, inolako zalantzarik gabe. Tabakoa edo alkohola ekoizten duten multinazionalak eta legez kanpoko drogen mafiek interes bera dute: kontsumitzaileen osasunaren kaltetan lortutako irabazia.

Droga-kontsumitzaileek euren produktua (alkohola, tabakoa, haxixa edo kokaina) erosten dutenean, drogen merkatua sustatzen dute, eta

inolaz ere ez dakite noraino iristen den. Ikasleak errealitate horretaz jabetzea eta errealitate horren aurrean jarrera kritikoa izatea dugu helburu nagusi.

Adiskidetasunari, justiziari, elkartasunari... eta antzeko balioei garrantzia ematen dieten eta manipulazioak antzematen dituzten adinean, drogen industria ahaltsuak erabilitako trikimailuei buruzko hausnarketak merkatu horren aurkako jarrera kritikoak piztu ditzake nerabeen artean.

hasiera 2' ↓

Ariketa honetako edukiaren berri eman ikasleei.

Tabakoaren kontsumoaren kostuak hizpide dituen telebista-saioa antzeztuko dute. Telebista-saioan, ikasle bat aurkezlea izango da, eta euren esperientziak azalduko dituzten lau gonbidatu izango ditu.

garapena 45' ●●●

Hona hemen gonbidatuen ezaugarriak:

1. Tabako-denda baten jabea. Tabakoaren arriskuak goraiatu egiten direla uste du.
2. Eguneko 25 zigarro erretzailea. Ezta-rriko narritadura baino ez dauka.
3. 20 zigarrotxoren erretzailea. Zenbait aldiz saiatu da uzten.
4. Erretzaile ohia. Itsulapikoan aurrezten du tabakoan gastatzen zuen dirua.

Gonbidatuek euren esperientzia azalduko dute: Nolako eragina du tabakoak

euren bizimoduan? Zer onura/kostu eragiten die tabakoak? Desabantailarik du? Bost laguneko taldetan banatu ikasleak. Taldeek pertsonaia baten ardura izango dute eta pertsona bana aukeratuko dute antzezteko. Zenbait minutu emango diezu prestatzeko eta antzezteko. Koadernoko 5. fitxa erabil dezakete. Gainerakoak ikus-entzuleak izango dira eta elkarrizketatuei egin ahal izango dizkiete galderak. Amaitzeko, ikasleek euren ondorioak atera, eta azaldu egingo dituzte.

amaiera 3' ✕

Nabarmendu egin behar duzu gure gizarteak arazoak dituela drogekin, era guztietako trikimailuen bidez drogak merkaturatzen dituen industria handia dagoelako. Amaitzeko, edari alkoholdunei buruzko publizitate-iragarkiak biltzeko eta hurrengo saiorako ekartzeko eskatu ikasleei.



→ orientazio didaktikoak

Taldeak bere sormena askatasunez adierazteko aukera izan beharko du, pertsonaiak prestatzeko eta antzetzeko orduan. Gidoi itxia barik, taldearen adierazkortasuna sustatzeko jarraibide nagusiak eskaintzea da helburua.

Oso garrantzitsua da hezitzaileek ariketaren helburuari eustea eta zentzurik gabeko erator-

penetan sartzeko aukera ez eskaintzea. Helburua ez da eztabaidatze aldera eztabaidatzea. Beraz, egokia deritzozunean esku hartu beharko duzu, eztabaidaren helburu nagusiari berriro eusteko aztergaiak proposatzeko.

Eztabaidaren ardatza argia da oso: «zer irabazten dudan eta zer galtzen dudan», egoera guztiak

kontuan hartuta. Inolako zalantzarik gabe, erretzen hastea da gaur egun menpetasuna gainditzeko borroka gogorrari aurre egin behar dioten pertsonak arinkeria handinez hartutako erabakietako bat. Gai horren aurrean nerabeei igortzen dizkiegun mezuek koherentzia sozialik ez dutenez, argi eta garbi dago zeresan handia dutela industria horren azpian dauden interesek.

→ gehiago jakin +

Tabakoaren kontsumoaren ondorioz, lau milioi lagun hiltzen dira urtero mundu zabalean, OME Osasunerako Mundu Erakundeko datuen arabera. Horrez gain, aurreikuspenak kontuan hartuta, heriotza-tasa hori hamar milioi lagunekoa izango da 2025ean, eta, euretatik, zazpi milioi izango dira garapen-bideko herrialdeetako biztanleak. Bestetik, European bakarrik, urtero 55.000 gazte hiltzen dira alkoholaren ondorioz. OMEren arabera, urtero mundu zabalean 1,8 milioi lagun hiltzen dira alkoholaren ondorioz, eta European eta Amerikan ematen da heriotza-tasarik handiena.

Nolanahi ere, irabazi ikaragarriak sortzen dituzten legeko negozioak dira. Kontsumitzaileen osasu-

naren kaltetan sortutako negozioak dira, eta, bertan, zeresan handia du publizitateak.

Edonoren esku daude legez kanpoko drogen trafikatzailerik lortutako dirutzari buruzko txostenak eta erreportajeak. Hala ere, alkoholaren eta tabakoaren industriek mugitzen duten milioi askoko dirutza ez da hain argi eta garbi azaltzen. Bi industria horiei bost axola zaizkie legezketasuna eta osasun publikoa, euren irabaziak hobetu ahal badituzte. Tabakoaren industriak ahalik eta presio handiena egin du European, publizitatea kontrolatzeko araudirik onar ez dadin. Zenbait urtetan presioa egin ondoren, industriak astindu galanta hartu zuen 2002an,

2005. urtetik aurrera ezin izango duelako bere produktuei buruzko publizitaterik egin Europako Batasun osoan.

Denok dakigunez, merkaturatutako tabakoaren osaketa manipulatu dute menpetasun handiagoo sor dezan, behin eta berriro jarri diote betoa tabakoaren toxikotasunari buruzko ikerketen argitalpenari, tabakismoa prebenitzeko egitasmoak finantzatu dituzte euren kontzientzia garbitzeko... Era berean, Europako Batzordeak sektoreko enpresa bati egotzi dio legez kanpoko drogekin zerikusi zuzena duten tabako-kontrabandorako sareak elikatu dituela zergarik ez ordaintzeko.



eraginak



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek jarrera kritikoak garatuko dituzte alkoholari buruzko publizitatearen aurrean.

Era guztietako publizitatea lehen mailako eragilea da, edari alkoholodunak edaten hasteko orduan. Industriak ukatu egiten badu ere, gaur egun ageri-agerikoa eta eztabaida ezina da publizitateak sekulako eragina duela nerabe eta gazteengan, batik bat.

Hain zuzen ere, egiaztatu egin da arlo horretan oso oso eraginkorra dela era guztietako sustapenak eta publizitatea kentzea. Industriak kontrolaren aurrean duen jarrera ikusi besterik ez dago. Eurek nahiago

dute autoerregulazioaz hitz egin, praktikan ezer egiten ez badute ere.

Oraindik ere, bolada batean, nerabe eta gazteak substantzia hau kontsumitzeko estimulu ugariaren helburu izango direnez, oso egokia izango litzateke mezuen azpian agertzen den literatura deskodetzen ikastea. Publizitatearen «esamesak» kritikoki argitzen ikasten badute, kontsumitzen hasteko arrisku txikiagoa izango dute.

hasiera 5' ↓

Saio hau garatzeko, alkoholari buruzko publizitate-iragarkiak banatu bost laguneko taldetan banatutako ikasleen artean.

Aurreko saioan biltzeko eskatutako iragarkiak erabili eta zuk zeuk aukeraturakoak aurkeztu. Koadernoko 6. fitxan dituzu zenbait adibide.

garapena 40' ●●●

Iragarkien osagaiak zehaztu: irudiak, musika, testua, eslogana... Gure ariketa testuari dagozkion alderdietan oinarrituko da. Gidoiak (egon baleude), esloganak eta beste era bateko testuak ateratzeko eskatu taldeei. Ondoren, honako hau aztertuko dute: Zer diote? Zer agintzen dute? Zerikusirik ote dute iragartzen duten produktuarekin? Hizkuntza deskriptiboa ala metaforikoa da? Taldeek esloganak trukaturako dituzte. Beste produkto batzuei buruzko publizitatea egiteko

erabil daitezke edari alkoholodunei buruzko iragarkiak? Interesgarria iruditzen zaien edozein produkturi buruzko publizitate-iragarkia sortzeko eskatu. Horretarako, alkoholaren iragarkietan testuingurutik kanpo ateratako testuak erabiliko dituzte. Taldeek edari alkoholodunen publizitateak erabili ohi dituen literatura-tekniken zerrenda bana egingo dute. Taldeek publizisten literatura-amarruen inguruan ateratako ondorioei buruz eztabaidatuko dute.

amaiera 5' ✕

Garrantzitsua da ikasleek saioaren ondorioa jasotzea eta egindako azterketak nerabeak egunero helburu dauzkaten publizitate-estimuluak aipatzen dituela gogoratzea. Ehunka publizistak bueltak eta bueltak ematen dizkiete testuei, edari alkoholodunen kontsumoa sustatzeko. Hala ere, testu horiek indarrrik gabe utz daitezke jarrera kritikoa izanez gero.

beharrezkoak • Ikasleentzako 3. koadernoko 6. fitxa
Edari alkoholikoei buruzko publizitate-iragarkiak

osagarriak • www.ordago.net

La publicidad también te invita a vivir sin drogas. Grup IGIA. Bartzelona, 1989.



→ orientazio didaktikoak

Ariketa honetan garatu beharreko azterketaren helburua ez da testuen edo literaturaren azterketa akademikoa egitea.

Izan ere, alkoholaren kontsumoa sustatzeko asmoz, publizitate-agentzietako talde sortzaileek erabiltzen dituzten literatura-trikimailuak praktikan antzematea dugu helburu nagusi.

Espainiera eta Literatura curriculumeko arlo egokiak izan daitezke, ikasleek publizitatearen amarruak euren kabuz antzematen ikastea helburu duen ariketa garatzeko. Horretarako, taldean antzeman ditzakete testuetako triki-mailuak, hausnarketak alderatu ditzakete, mezuak eta gidoiak atera ditzakete testu-iruritik kanpo...

Ikasitakoa oso adierazgarria izango da, euren kasa antzeman ahal izango dutelako zer amarru jartzen dizkieten alkoholaren industrietako bezero berriak izan daitezen.

Hezitzaileek kritikoki sustatu beharko dute kontzientziazteko prozesu hori.

→ gehiago jakin +

Adierazi behar dugu gero eta kritika gehiagok mugatu nahi dutela publizitate-industriak oraintsu arte izandako «limurtzeko baimena». Gero eta ahots gehiagok jarri nahi dizkiote mugak industria horren jarduerari. Bi adibide izango ditugu aztergai.

Korrika... hil arte?

Zirkulazio-istripuengatik heriotza-tasa sarraski geldiezina da mundu zabalean. Espainian bakarrik, bost milatik gora lagun hiltzen dira horren ondorioz, eta gehienak gazteak izan ohi dira. Mundu guztiak egoera hori kontrolatzeko neurriak eskatzen ditu. Neurri horiek azpiegituren

hobekuntzarekin, bide-hezkuntzarekin, legea ez betetzeagatiko zigorrekin... dute zerikusia, bai eta publizitate-iragarkien desagerpenarekin ere, jakina. Izan ere, autoa aurreko neurriek ezarritako printzipio guztiak hausten dituen erara gidatzeko eskaintza egiten digute. Iragarki horietan, gizarte-maila, boterea, askatasuna... ematen duen tresna da autoa. Non daude bizitzarako, osasunerako, segurtasunerako... eskubideak, ordea?

Zer ote dute emakumeek, zer ote?

Tradizioaren arabera, publizitatea emakumeen irudiaz baliatu da erabilera sinestezinenetarako. Ezinezko gurarien bultzatzaile hutsa edo

edozein sakrifizio merezi duen metafora bihurtutako emakume sofistikuak agertu ohi dira.

Emakumeen eragina gero eta handiagoa den munduan, argi eta garbi zegoen publizitateak bere izen ona galduko zuela. Non dago generoagatiko bazterketarik ez jasateko eskubidea, ordea?

Ondorioa

Gizarteko gero eta arlo gehiagotan adierazten da oinarriko balio sozialak urratzen dituzten publizitate-jarduerak kontrolatu behar direla.



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek pertsonen arteko harremanetan balioek duten garrantziaren inguruko kontzientzia hartuko dute.

Nerabezaroan, sentimenduen munduak eta pertsonen arteko harremanek funtsezko esanahia dute. Dena dela, ez da batere erraza mundu horretan moldatzen ikastea, taldearen barruan jokatzeko ikastea, batez ere.

Hautzaroan, bizitza erraza da oso. Nerabezaroan, berriz, askoz zailagoa da. Ikasbide asko ematen dizkieten helduen antzera, nerabeek zenbait balio hartzen dituzte kontuan euren harremanetan,

batzuetan adiskidetasun osasungarriaren ezaugarri diren zintzotasuna eta leialtasuna bete-betean urratzen badituzte ere.

Ikasleek gizarte-harremanetarako estilo berezia antzematea eta balio onak garatzen ikastea da ariketaren helburu nagusia. Gainerakoekin harremanetan jartzeko moduak ikasi egiten dira, eta eskola bera eremu paregabea da horretarako.

ariketa

hasiera 15'

Euren lagun minarengan banan-banan pentsatzeko eskatu ikasleei.

Lagunaren zer ezaugarri dute gustukoak? Zergatik dute laguntzat?

Ikasleentzako Koadernoko 7. fitxa erabili eta euren lagun minaren ezaugarrien zerrendatxoa egiteko eskatu.

garapena 30' ● ● ●

«Nire lagun minaren» erretratu robota sortuko dugu. Banan-banan, honako galdera honi erantzun beharko diote: Zer da lagun batengan gehien balioesten dudana? Hiru ezaugarri/balio aukeratu eta kartel, collage, marrazki edo gutun batean edo ahalik eta modu onenean adierazteko aukera ematen dien baliabidean jasoko dituzte. Ondoren, taldeka, lan guztiak bateratuko dituzte, guztien artean lan bakar bat egiteko. Lana amaitutakoan, taldeetako bozemaileek euren taldean gehien balioesten

dituzten ezaugarriak azalduko dituzte, bai eta irudikatze erabili duten marrazkiaren izena ere. Zenbait galdera garrantzitsu egingo dizkiegu: Gainerako taldeei ere garrantzitsuak iruditzen zaizkie, beste osagai batzuk kontuan hartu badituzte ere? Neure buruaren gainean egiten dudana balioespenean pentsatzen dudanean, alderdi horiek onartu behar diren garrantzian ere pentsatzen dut? Osagai horiek guztiak kontuan hartuta, lagun min horrek izan beharko lituzkeen ezaugarrien zerrenda egiteko eskatu.

amaiera 5'

Ikasleen iritziz lagun minak izan behar dituzten ezaugarriak irakurri. Seguruenik, honako ezaugarri hauek balioesten dituzte gainerakoekin dituzten harremanetan: prestutasuna, zintzotasuna, leialtasuna edo, bestela, adeitasunarekin, begikotasunarekin, erantzukizunarekin, elkartasunarekin... zerikusia duten nortasun-alderdiak.

- beharrezkoak** • Ikasleentzako 3. koadernoko 7. fitxa
Kartoi meheak, aldizkariak, argazkiak, kola, errotuladoreak...
- osagarriak** • www.ordago.net
DEVA. Desarrollo de valores y autoestima. IPE-EDEX. Bilbo, 1998.



→ orientazio didaktikoak

Ariketa honetan, taldean erabakiko dute zeintzuk diren benetako adiskidetasunaren ezaugarriak. Pentsamendu abstraktua da, beraz. Marrakzi hori ametsezko pertzepzioa ez izatea da helburua, ikasleen benetako esperientziatik sortu behar delako, euren eguneroko bizipenetan oinarritu behar delako, euren adiskideak edo beste pertsona adierazgarri batzuk kontuan hartuta.

Gizakiok gainerako pertsonengan balioesten ditugun alderdiak zeintzuk diren jakin nahi dugu, eta, horren arabera, geure burua balioesten dugu. Seguruenik, gehienetan balioespen horiek ez dira kanpoko alderdietan oinarritzen, izaerarekin, nortasunarekin, gainerakoekin dugun harremanarekin, zintzotasunarekin eta erantzukizunarekin zerikusia duten alderdietan baizik.

Taldekide batzuk beste batzuk baino ospetsuagoak dira eta adiskide edo ezagun asko dituzte. Beste batzuk, ordea, isilagoak dira. Nork bere esperientzia du eta, horren arabera, ezaugarri jakin batzuk balioesten ditu gainerako pertsonengan. Nik neuk balioesten ditudan ezaugarriek zeresan handia dute gainerakoekin harremanetan jartzeko orduan. Ispilu-ariketa egin daiteke.

→ gehiago jakin +

Ikerketa guztiek agerian uzten dute taldeak zeresan handia duela nerabezaroan nortasuna eratzeko orduan. Neska-mutilek euren buruaren ametsezko irudia bilatzen dute lagun-taldean, familiak nekez eskaini ahal dielako halakorik. Nerabezaroa etapa ebolutiboa da, eta, bertan, aurrerantzean gizakiaren ezaugarri izango den harreman-estiloa eratzen da neurri handi batean. Garai horretan, «lagun minaren» edo «lehenengo senargaiaren» intimitatea absolutua eta errepikaezina dela dirudi, norberari bakarrik gertatu ahal izango balitzaio bezala eta inork antzeko sentipenik izango ez balu bezala.

Taldea ez da alde zuzenetik behin betiko ezarritako errealitate egonkorra. Lagun-taldea kaleidoskopioa da, eta eratu eta berrerratu egiten da aldi-aldi, taldekideen balioak, ideiak, sentipenak... kontuan hartuta. Beraz, taldea ez da entitate abstraktu mugiezina, behin eta berriro sortzen delako taldekide guztien ekarpenetan oinarrituta. Taldekide guztien ekarpen emozionalaren emaitza multiformea da.

Gizakiok geure errealitatea aldatzeko gaitasun handia dugunez, geure harreman adierazgarriak berreraiki ditzakegu. Horretarako, estrategia baliotsua da beste pertsona

batzuek balioesten ditugun ezaugarriak eta nortasun-estiloak aztertzea, taldea bizitzeko leku egokia izan dadin eta, bertan, presio gutxiago egon daitezen. Bestetik, gogoan izan behar da taldearen presio-mota bi daudela: taldearen presio ona eta txarra. Biak batera agertzen dira taldearen adierazgarri diren elkarreraginak gurutzatzean. Taldearen presio txarraren ondorioz jokabide arriskutsuak azaldu ahal badira ere, taldearen presio ona benetako babes-eragile ahaltsua izan daiteke larregizko droga-kontsumoaren eta beste jokabide arriskutsu batzuen aurrean, balio eta harreman-estilo erakargarrienak jartzeko dituelako agerian.



Honako erabaki hau hart

erabakiak hartzeko prozesua



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek zentzuzko erabaki autonomoak hartzeko estrategietan sakonduko dute.

Erabakiak hartzea oso garrantzitsua da neraberoan. Aurreko etapa ebolutiboetan, helduek eurek hartzen zituzten oinarrizko erabakiak. Hori dela eta, haserrealdi bat baino gehiago sortzen zen. Dena dela, jokoaren arauak ziren eta oso erosoak zen.

Heldutasuneranzko etapa honetan, abian jarri beharreko trebetasun pertsonal eta sozial asko garatzen ari dira oraindik. Hori dela eta, zenbait eragin txarren menpe har daitezke erabakiak:

taldearen presioa, informazio desegokia, beldurrak, aurreikuspenik eza...

Saiatuz eta erratuz ikasten dugu erabakiak hartzen, hau da, gure aukeren ondorioak praktikan bertan esperimendatuz. Aukera zuzena ote da? Egoeran eragina duten osagai guztiak kontuan hartuta erabakiak hartzen ikasten badugu, konfiantza eta segurtasun handiagoa izango dugu geure erabakietan. Horretarako, ezinbestekoa da egoera ezagutzea, jokabide egokietan pentsatzea eta... miaztea.

ariketa

hasiera 5' ↓

Saio honetako ariketan, erabakiak hartzeko prozesua lantzen da.

Ikasleek erabaki arrazoi-tuak hartzeko prozesuko urrats guztiak aztertuko dituzte. Ikasleentzako Koadernoko 8. fitxan dagoen egoera taldean irakurtzeko eskatu. Taldeek euren erabakia hartu beharko dute.

garapena 40' ●●●

Arrazoitutako erabakiak hartzeko sekuentzia hartuko dugu kontuan:

1. Arazoa aztertu.
2. Irtenbideen edo aukeren zerrenda egin.
3. Erabakien abantaila eta desabantaila buruzko zerrenda egin.
4. Abantaila gehien eta desabantaila gutxien dituen erabakia hartu.
5. Abian jarri.
6. Erabakiaren emaitzak balioetsi.
7. Zuzendu, beharrezkoa izanez gero.

Taldeek prozesuko lehen urratsari buruz egindako balioespina aztertu eta gainerakoei azalduko diete. Talde guztiek amaitu dutenean, talde bategan balioetsi eta beste talde batzuetan balioetsi ez dituzten alderdiei buruzko iritzia alderatu. Prozedura bera garatu urrats guztietan, harik eta taldeek hartutako erabakira iritsi arte. Taldean aztertu erabaki hori. Ados daude? Zeintzuk dira aldeak? Taldeen arteko eztabaida antolatatu.

amaiera 5' ✕

Amaitzeko, astebetean zehar erabakiak hartu behar dituzten benetako egoeretan prozesu osoa aplikatzeko eskatu. Ikasleei gogoratu ez duzuela prozesu horretako osagai bat aipatu, urrats guztiak zeharkatzen dituelako, hau da, arazoa argitasun handiagoz aztertzeko aukera eskaintzen duen kanpoko ikuspegia bilatzea.



→ orientazio didaktikoak

Elkarreragina oso lagungarria izan daiteke bizimoduarekin eta jokabidearekin zerikusia duen ikaskuntza barruratzeko.

Kasuen bitartez, objektibotasunez aztertuko dugu egoera bat, eskaintzen dizkiguten datuak kontuan hartuta eta prozesu egokienari eutsita. Koadernoko proposamenak adibideak direla

hartu behar duzu kontuan eta ikasleak motibatuago egongo direla egoera hurbilak edo euren gaur egungo interesekin zerikusia duten egoerak proposatuz gero (telebistakoak, aldizkarietakoak...).

Droga-menpetasunen prebentzioan, osasunarekin zerikusia duten beste arlo batzuetan bezala, ez

dago jokabide egokiena agintzerik. Gure esperientziari eta jakintzari esker, irtenbidea (zein den dakigunean, jakina!) eman ahal diegu, baina horrela jokatzuz gero, euren kabuz ikasteko aukera lapurtzen diegu. Hezitzaileek taldeak bultzatuko dituzte taldekide guztiak parte har dezaten, eta, horrez gain, den-dena koordinatuko dute kasu guztiak helburuen arabera aztertu daitezen.

→ gehiago jakin +

Droga-menpetasunak prebenitzeko egitasmoen ebaluazioaren arabera, erabakiak hartzeko prozesu arrazoituetan trebatu beharra dago, hezkuntza-tresna eraginkorrenetakoa da eta. Egoera zailei aurre egiteko kontuan hartu beharreko urratsen sekuentzia barruratzuz gero eta adierazitako prozedurari eutsiz gero, askoz errazagoa da erabaki zuzenak hartzea. Arrazoitutako erabaki autonomo horiek pertsonaren balio eta jarreraren proiektzio praktikoa dira.

Drogen kontsumoari dagokionez, nerabezaroan lagun-taldeak egindako presioa da egoera zail nagusietako bat. Horrela, bada, pertsonak argi eta garbi jakin dezakete zer erabaki hartu nahi

duten (esate baterako, drogarik ez hartzea edo une horretan drogarik ez hartzea edo aurrerantzean drogarik ez hartzea). Era berean, horrela jokatzeko erabakia har dezakete, euren iritziz jokabide egokiena delako, nola sentitzen diren kontuan hartuta. Dena dela, ondoren, erabakitakoaren arabera jokatzeko gai izan beharko dute. Une horretan, eragin handia izan dezake taldearen presioak. Logikaren bidez ez dago taldearen presioari aurre egiterik, gizakien dimentsio emozionalak aipatzen dituelako eta dimentsio horiek talde batekoak izateko sentimenduarekin, nortasunaren bilaketarekin... dutelako zerikusia. Nolanahi ere, nerabeek zenbat eta argitasun handiagoz barneratu erabakiak hartzeko prozesu arrazoitua, orduan

eta hobeto erabili ahal izango dute eta askoz errazago bururatuko zaizkie presio horiei aurre egiteko erantzunak, modu zehatz batean jokatzeko.

Ikasleei gogorarazi gizakiok ez dugula inolako argibide-libururik burmuinean edo kode genetikoan, unean-unean zer erabaki hartu behar dugun jakiteko. Hori dela eta, askeagoak gara, baina eragozpen gehiago sortzen dira. Etengabe hartu behar ditugu erabakiak. Hala ere, badago albiste onik, asmatzeko aukera gehiago eskaintzen dizkigun prozesu logikoari eutsi diezaiotegulako.



Presioari aurre egiten

taldearen presioari aurre egin



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek presioei asertibitatez aurre egiteko trebetasunak garatuko dituzte.

Pertsona guztiok gaude presio eta eragin-iturri askoren eraginpean. Presio horien inguruan dugun kontzientzia handia denean, autonomoagoa eta askeagoa izan ohi da gure erantzuna. Autoafirmazio pertsonala ezinbesteko ezaugarria da presio-egoerei arrakastaz aurre egin ahal izateko.

Autoafirmazioaren aldeko jarrera izateko, nerabeek presio-egoeren eraginpean daudela onartu

behar dute. Batzuetan, egoera horien ondorioz, uste ez bezalako erabakiak hartu behar dituzte ezinbestean.

Ikasitakoa oso baliotsua da etapa honetan, nerabeek inolako eraginpean ez daudela uste dutelako. Horren ondorioz, nekez antzematen dituzte taldeak euren jokabidean egiten dituen presioak. Oso ikaskuntza egokia izango litzateke presio horiek onartzea eta kudeatzen ikastea.

hasiera 5' ↓

Saioko edukiak aurkeztu taldeari. Guztiok ahulak gara gizartearen presioen aurrean. Nolanahi ere, presio horiek neutralizatzen ikas dezakegu edo euren eragina gutxitzen, behintzat.

Irudizkoak izan arren benetakakoak diruditen bi egoeratan oinarrituko gara presio horiek aztertzeko.

garapena 40' ●●●

Bost laguneko taldeak osatu eta ikasleentzako Koadernoko 10. fitxako bi egoerak aurkeztu. Banan-banan irakurri ondoren, taldeek egoerari buruz hausnartuko dute, eta, horretarako, ekintzak aztertuko dituzte. Era berean, role playinga ere egin daiteke, taldeek bi egoerari emandako erantzuna antzestu dezaten. Honako galdera hauei erantzun beharko diete:

- Euren ustez, nola sentitzen dira pertsonaia nagusiak?

- Zein izango da egoeretako pertsonaia nagusien jokabidea?
 - Nolakoa izango litzateke euren jokabidea?
 - Nola erantzun asertibitatez horrelako egoeretan?
 - Euren ustez, zer irizpide hartu behar dira kontuan erabakia hartzeko eta presioari aurre egiteko?
 - Beste irizpiderik hartuko lukete kontuan egoera berberetan?
- Taldeek euren ondorioak atera, eta azaldu egin beharko dituzte.

amaiera 5' ✕

Saioaren amaieran, askotan egoera zailen eraginpean gaudela nabarmendu, eta, bertan, autoafirmazio pertsonalerako dugun gaitasuna jartzen dela jokoan. Halako egoeretan, ez da beti erraza izaten erantzun egokiarena asmatzea, baina trebetasun hori ikasi egin daiteke. Praktika bera da ikaskuntza horren ardatza.



→ orientazio didaktikoak

Ariketan, kasuak aztertu ahal izango dira taldeka edo, bestela, role playinga egin ahal izango da. Kasuak aztertzeko orduan, erantzunen aldeko eta aurkako osagai guztiei buruz eztabaidatzeko eskatu. Role playingari esker, erantzun asertiboaren garapenean trebatu ahal izango dira. Dinamika horren alde egiteko gomendatzen dizugu. Norberaren eskubideak babestuta eta gainera-

koen eskubideak urratu gabe, norberak pentsatu eta sentitzen duenaren arabera adierazteko aukera eskaintzen du jokabide asertiboak. Oso garrantzitsua da pertsonaiek zer sentitu eta pentsatu dezaketen eta nola jokatzeko duten azaltzea. Asertibitatez adierazteko, mezuak lehen pertsonan igorri behar dira. Horrela, bada, autoafirmazioa norberaren gurari eta eskubide-

etan oinarrituko da. Kontuan hartu ez diren alderdiak aipatu. Antzeko egoerak, zailtasunak, jokoan dauden emozioak, gainerakoek norberaz zer espero duten ez jakiteak sortutako sententzioa... gogoratzeko eskatu. Zer balio izan dituzte kontuan erabakietan? Berretsi egin dituzte edo etsi egin dute presioen eraginez? Euren gurariak inposatu dizkiete beste pertsona batzuei?

→ gehiago jakin +

Autoafirmazioa harremanetarako plataforma kognitiboa eta emozionala da, eta, bertatik, pertsona batek gainerakoekin du elkarreragina. Jokabide asertiboaren oinarria da, eta gaztetxoek jaiotzatik bertatik jasotzen dituzten estimuluen bilbaduraren emaitza da, batzuetan estimulu horiek kontrajarriak badira ere. Nerabezeroan, gizakiei inguruko pertsonekin eta, batez ere, berdinekin harreman onak izateko aukera eskaintzen dizkieten trebetasun pertsonal eta sozialen ardatza da autoafirmazioa.

Autoafirmatzeko gaitasun hori behar bezala erabiltzen ez badute, nerabeak ahulak izango dira taldearen presioaren aurrean. Aurreko saioetan

ikusitako bezala, presio hori arrisku-eragilea da drogen kontsumoari begira (eta beste jokabide arriskutsu batzuei begira). Bere eraginari dagokionez, adostasun handiagoa dago gizarte-zientzien arloan.

Nerabeek harremanetarako duten gaitasunean eragin handia izango du aurreko urteetan izan duten bizi-esperientziak. Dena dela, osagai dituen trebetasun asko eta asko hezigarriak dira oraindik, inolako zalantzarik gabe. Horixe bera gertatzen da autoafirmazioan, drogen kontsumoari eta beste jokabide arriskutsu batzuei aurre egiteko lehen mailako trebetasun babestuan, alegia. Behar bezala garatzeko, bizitarako

trebetasunetan trebatu beharra dago modu egituratuan. Hizpide dugun kasuan bezala, trebetasun horiek presio-egoerak onartzeko eta erantzunak saiaturaz eta erraztuz asmatzeko aukera eskaini beharko dute, harik eta gizakiaren nortasunera eta bizimodura ondoen egokitzen den erantzuna aurkitu arte. Nerabeek trebetasun hasiberrien garapenean trebatzeko orduan, hezkuntzako oso jarduerak egokia da ikasgela hausnartzeko, eztabaidatzeko, iritziak aldatzeko, jarduteko eta besteen lekuan jartzen ikasteko laborategia izango balitz bezala erabiltzea. Izan ere, trebetasunak behar bezala garatu gabe gera litezke, bestela. Arrisku hori saihestu egin daiteke, neurri handi batean.



Zeren bila zabilta, ba



aurretiko azalpenak

→ helburua

Ikasleek euren aisialdiaren erantzule izaten ikasiko dute.

Aisialdia oso tarte egokia izan daiteke norberaren nortasuna aberasteko, gozatzeko eta sormena lantzeko, edo, bestela, pasibotasuna eta nagikeria sustatzeko tartea izan daiteke. Beste era bateko sentrazioak bizitzeko grinak etsipenera edo ohikeriara eraman gaitzake. Astea amaitu egin da, klaseak amaitu egin dira eta «dibertitzeko» gogoia daukat, nahi dudana egiteko gogoia, eta oraintxe bertan egin nahi dut. Dena dela, batzuetan, alde handia dago itxaropenen eta errealtatearen artean. Ohikeriak berak sor dezake alde handi hori. Beste

batzuetan, ordea, inguruneak eskaintzen dituen aukera eskasen ondorioz sor daiteke. Hala ere, nerabeek ingurunean ez dituzten aukerak eraikitzen ikas dezakete. Ez dute antzemandako gabeziak zertan onartu. Gizakiok ez dugu hegan egiterik, ez dugu grabitatearen legeari aurre egiterik, baina hegazkinak egin ditzakegu, parapentean ibil gaitzake, aeromodelismoa egin dezakegu edo, besterik gabe, tranpolinetik jauzi egin dezakegu igerilekura. Jarduera asko eta asko ditugu eskura gure aisialdia aberasteko.

hasiera 5' ↓

Aisialdirako jardueren sustatzaileak izango direla azaldu ikasleei. Zorioneko daude! Udalak deitu egin die gazteentzako politiken azalpenean parte har dezaten. Horra hor euren gurariak betetzeko aukera paregabea. Hiriarentzat onuragarriak izan daitezkeen proposamenak egin ditzakete azkenean.

garapena 40' ●●●●

Aisialdian garatu nahi lituzketen jarduera guztiak aipatzeko eskatu. Kirol, kultur, musika... jarduerak. Arbelean idatzi. Gustukoak dituzten hiru jardueren alde banan-banan bozkatzeko eskatu. Boto gehien lortu dituzten bostak aipatu eta interes-taldetan banatzeko eskatu.


Beste gazte batzuk erakartzeko asmoz, dibulgazio-kanpaina garatu beharko dute. Taldeek honako informazio hau jasotzen duen agiritxo

bana egin beharko dute (Ikasle-entzako Koadernoko 11. fitxa):

1. Jardueraren izena eta azalpena.
2. Hartzaileak.
3. Garatzeko beharrezko baliabideak (materialak, giza baliabideak, ekonomikoak).
4. Babesak: elkartek, politikariak, komunikabideak...
5. Marketing-kanpaina: nola erakarri jardueren interesa izan dezaketen pertsonak?

amaiera 5' ✕

Planak egindakoa, elkar-teei, tokian tokiko politikariari edo komunikabideei jakinarazi beharreko aldarrikapenak prestatuko dituzte. Amaitzeko, gustuko jarduerak aurkitzeko moduetako bat jarduerok sortzea dela adierazi. Izan ere, motibatutako pertsonen konpromisoari esker sortzen dira hainbat eta hainbat baliabide.



→ orientazio didaktikoak

Saioaren helburua ikasleak motibatzea izango da, irudimenaren bidez bizi diren lekuan izan nahi lituzketen jarduera guztiak antzeman ditzaten, hasieran oso bideragarriak ez direla iruditzen bazaie ere.

Eurek zer egin nahi luketen eta lagunek eta ezagunek zer jardueratan parte hartuko luketen

entsatzeko eskatu. Ideien zurrunbiloa izeneko teknika erabiliko dugu.

Hasierako suposamenduaren arabera, askatasun-giroan, pertsona guztiak ideiak ekoizteko gai dira, eta taldearen adimena taldekideen adimenen batuketa baino handiagoa da.

Saio honek ikasleekin droga-menpetasunen prebentzioaren arloan garatutako ariketen zikloari ematen dio amaiera. Batzuetan, zenbait arrazoiengatik, ez du inolako jarraipenik izango. Nolanahi ere, hurrengo urtean jarraipena izatea da gure asmoa.

→ gehiago jakin +

Ikasleek aisialdiaz gozatzeko duten jarrera ez da bat-batean sortzen nerabegarora iritsitakoan. Jarrera hori euren jokabidea zenbait norabidetan estimulatu eta motibatzen duten eragin askoren menpe dago. Eragin-iturri horien artean, modak eta gazteentzako aisialdirako industria aipatu behar ditugu etapa ebolutibo honetan. Dena dela, aisialdiaren bizipenak ere jaso dezake hezkuntzaren eragina.

Batez ere, gaur egungo gizarteetan, urtez urte zuzenean ekoizpena helburu ez duen denborari garrantzi handiagoa ematen badiote ere, errealitatetik oso urrun dago egile batzuek zehaztutako «aisialdiaren gizarte». Dena dela,

giza bizimoduaren dimentsio hori gero eta adierazgarriagoa da, inolako zalantzarik gabe. Ez dirudi datozen hamarkadotan joera horrek atzera egingo duenik. Hala ere, zentzuzkoa izan daiteke sendotu egingo dela eta oraindik ere beste erritmo batzuen menpe bizi diren testuinguru sozial eta kulturaletara zabalduko dela hipotetizatzea.

Testuinguru horretan, aisialdia esperientzia egokia bihurtzeko, hezkuntzak aurrekaririk gabeko garrantzia du. Hezkuntza-arloko apustu horrek lortu egin behar du denbora pertsonal hori nola bete daitekeen ez dakiten zulo beltza ez izatea, nortasuna aberasteko esperientzia

izatea baizik. Zeregin horretan, hezkuntzaren munduak hezkuntzako testuinguru ez-formaletan esku hartzen duten era guztietako erakundeen laguntza izan dezake (elkartek, aisialdirako taldeak...). Hain zuzen ere, elkarrekin eta antolatuta lan egin dezakete, nerabeei ekimen handiagoa izan dezaten euren aisialdia antolatzeko orduan. Ekintza horrek gaueko irtenaldien inguruko kontzientzia kritikoa piztea du xede, irtenaldiok aisialdirako aukera bakarra izan ohi dira eta. Nolanahi ere, nerabeei euren aisialdia antolatzen laguntzen dieten trebetasunak garatzea da horrelako jarduketan helburu nagusia, aisialdiak euren bitzita aberasteko gaitasuna izan dezan.



edex